

Aurkezpen orokorra

Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea (IKER) UMR bat da (Ikerketa Unitate Mistoa).


1999an sortuz geroztik, proiektu zientifiko zein tekniko garrantzitsuak garatu ditu. Hala nola: euskararen atlas linguistiko bat (morfosintaxia eta lexikoari dagokiona), euskal hiztun berrien eta sintaxi mikro-bariazioen behatoki bat, dilaketologiari dagozkion ikerketak, edo euskal testuen eta beren genesiaren gaineko ikerketak.

IKER euskal ikasketei zuzenduriko Frantziako unibertsitate mailako zentro bakarra da. IKER laborategia euskal ikasketetako master zein doktoretza ikasleen harrera-leku bakarra ere bada.

Unitateak euskararen eta tipologikoki gertukoak zaizkion hizkuntzen gaineko hainbat diziplinetako lanak batzen dituen artxibo ireki bat (*Artxiker*) eta euskal ikasketen gaineko aldizkari zientifiko bat (*Lapurdum*) ditu.



<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr>




<http://lapurdum.revues.org>

Helbidea eta nola iritsi

✉ IKER - UMR 5478

Errobiko Kanpusa – Gaztelu Berria
15, Paul Bert Plaza - 64100 Baiona
Tel. : (33) 05 59 57 42 00
Posta-e : contact@iker.cnrs.fr
<http://www.iker.cnrs.fr>




Tutela et partaideak

Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea IKER tutela moduan CNRS, Bordele 3-ko Unibertsitatea eta Pabeko Unibertsitatea (UPPA) ditu. Unitatea CNRS-ko Fédération de Recherche Typologie et Universaux Linguistiques (TUL) delakoaren partaide da.



IKER UMR 5478-ren Dokumentazio zentroa



<http://www.iker.cnrs.fr/-centre-de-documentation-.html>

Bildumei begirada

Dokumentazio zerbitzuak irakurketa gelan hartzen ditu irakurleak. Bertan, eskuragarri izango ditu euskal hizkuntza eta testuei buruzko bilduma inprimatu eta elektronikoa.

Euskal hizkuntza, literatura eta zibilizazioa

Irakurketa gelan giza zientzia eta zientzia sozialetan erreferentzia diren testu zahar zein garaikideak aurki daitezke, 5.100 ale denetara :

- antropologia, soziologia, soziolinguistika
- hizkuntzalaritza, sintaxia, semantika
- euskal hizkuntza eta literatura
- Euskal Herriko biografia, historia, geografia

Sareko dokumentu-katalogoa

Kutxa katalogo informatizatua internet bidez kontsultatu daiteke. *Kutxa*-k erabilgarri diren liburu, aldizkari, tesi eta unibertsitate memoriak zerrendatzen ditu. Bertan, bilaketa bakun zein aurreratuak egin daitezke. *Kutxa*-k, autorearen, izenburuaren edo gaiaren arabera, dokumentuen kokalekua irakurketa gelan zehazten laguntzeaz gain erreferentzia bibliografikoak UNIMARC eta ISBD formatuetan ematen ditu.



 <http://www.iker.cnrs.fr-catalogue-kutxa-.html>

Zerbitzuen inguruan

Dokumentazio zentroak ikasketarako liburutegi baten ohiko zerbitzuak eskaintzen ditu.

Zerbitzuen tipologia

- irakurleen harrera eta laguntza
- erreserban litaizken dokumentuen jakinaraztea
- dokumentuen erosketa
- lanen mailegua
- ikerketarako eramangarrien mailegua
- formazioak

Dokumentatzaile baten laguntza eskainiko da unibertsitate atarietako dokumentuetarako sarbide informatizatuetan.

Oharra : *biblioshs* plataformara laborategiko langileak baino ezin daitezke sar (ikerlariak, irakasle-ikerlariak, doktoregai edo ingeniariak).

Zuen eskura

- hamar toki (eserita)
- bi multimedia internet postu
- Wifi konexioa
- funtzio anitzeko erreproduzitzaile bat
- mikrofilmen irakurgailu bat

Kontaktua eta informazioa

J.-P. Talec | doc@iker.cnrs.fr
Tel : bulegoa (33) 05 59 57 42 02 | gela 42 03

Erabiltze-baldintzak

Izen-ematea

Izen-ematea dohainikakoa eta nahitaezkoa da ikerlari, irakasle-ikerlari, doktoregai eta euskal ikasketetako masterreko ikasleentzat. Azken hauek beren egoera berresten duen unibertsitate-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Maileguak

Erabiltzaile bakoitzak dokumentu bat edo gehiago mailegatzeko eskubidea du. Aldiz, etxerako mailegurako baldintza batzuk bete behar dira (funtsean, dokumentuen kopurua eta maileguaren iraupenari dagozkionak).

Mailegatzzaileak, hartzen dituen dokumentuen ardura osoa izango du.

Liburu zaharrak, tesiak eta aldizkariak ezin daitezke maileguan har.

Ordutegia

Irakurketa gela, masterreko ikasleentzat 14-18 bitartean egongo da irekia astearteetatik ostegunetara eta 14-17 bitartean ostiraletan (hitzordurik ezean). Dokumentazio zentroa uztailaren bukaeratik irailerarte, eta eguberrietan, itxita egongo da.

Masterreko ikasleak ez diren pertsonak laborategiko Zuzendariaren baimena ukan beharko dute irakurketa gelara sartu ahal izateko (ikus barne-araudia).